



TUBOS REUNIDOSEK OLANGILEAK LANUZTEEKIN JARRAITZEN DUTE HITZARMEN

Amurrioko lantegia bost urtetan zehar galdutako erosteko ahalmena berreskuratzeko mobilizatzen ari da.

Enpresak eta Amurrioko Tubos Reunidoseko Batzordeak hainbat hilabetez negoziatu ondoren, eta blokeoa ikusita, langileek lanuzte partzialak hasi dituzte, azken urteetan galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea eskatzeko.

Esfortzu eta sakrifizio urteak metatzen ditugu, 5 urte hitzarmena berritu gabe, aldi baterako lan-erregulazioak jarraian sufrituz, gure lan-baldintzen aldaketak eta abar. Zor ekonomiko izugarria dugu taldeko zuzendaritzaren erabakiengatik, akziodunak bere garaian forratu zitezten. 2021ean zor hori diru publikoarekin handitu genuen ustezko plan estrategiko bat aurrera eramateko, ziurtasunak baino zalantza gehiago sortzen dituena. Baina ziur gaude, itzuliko dena, gure izerdiaren fruituarekin izango dala, hori ziurtasun bat da.

Hori dela eta, Zuzendaritzak 2017-2021 aldiko langileentzako KPIa berreskuratzea erabakitzeari uko egin zionez (Zuzendaritzak, bere soldatak gehitzen duten bitartean), mobilizazioei ekitea erabaki dugu, gurea dena exijitzeko. Sortutako egoera ikusita, lanuzteak otsailean eta martxoan zehar jarraituko dira.

ELAk ez du onartuko 2021eko KPIa hitzarmen berri baten trukerako txanpon gisa erabiltzea, Zuzendaritzak uko egin baitio iaz akordio bat ixteari, eta horrek eragiten du 2021eko atzerapenak ere gehitzea, 2017-2020 aldiarekin batera. Horiek dira bere negoziazio-estrategia negargarriaren ondorioak.

Orain arte bezala, lanuzteekin eta mobilizazioekin jarraitzeko deia egiten diegu langileei. Langileen erantzuna ikusgarria izaten ari da, eta horrek harro sentiarazten gaitu.

